

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO
GRADUDUN TITULURAKO PROBA LIBREAK**

Gizarte Zientzien esparrua

DATU PERTSONALAK

Deiturak..... Izena.....

NANa.....

Helbidea: Kalea/plaza:.....zk.....
PK.....

Herria..... Probintzia..... Tel.:.....


Deialdia: 2018ko otsaila

AUKERA ITZAZU 7 PROPOSAMEN HAUETATIK BOST:

(Puntu 1 bakoitzeko)

1. Azal itzazu klima mediterraneoaren ezaugarriak, prezipitazioei eta tenperaturei dagokienez. Esan ezazu non dagoen Espainian eta Nafarroan.
2. Definitu itzazu kontzeptu hauek: latitudea, longitudea, meridianoa eta paraleloa. Esan ezazu zein diren 0º meridianoa eta 0º paraleloa.
3. Lehengaiak eta energia iturriak: definizioa eta motak.
4. Europar Batasuna: garapena eta erakunde nagusiak (azal itzazu hitz gutxitan).
5. Migrazio mugimenduak: zergatiak, ondorioak eta migrazio-motak.
6. Hirugarren sektorea: definizioa. Azal itzazu sektore honetako jarduerak.
7. Osa ezazu mapa, jarraian dauden mendikateak eta ibaiak zuzen kokatuz. Jar ezazu dagokion tokian haien ondoan ageri den zenbakia:

*1. Ebro – 2. Guadiana – 3. Sistema Betikoak – 4. Miño – 5. Sistema Iberikoa
6. Kantauriar mendikatea – 7. Guadalquivir – 8. Pirinioak – 9. Duero – 10. Tajo.*



AUKERA ITZAZU 7 PROPOSAMEN HAUETATIK BOST:

(Puntu 1 bakoitzeko)

1. Paleolitoko eta Neolitoko artea.
2. Erroma. Azal ezazu gizarte erromatarrean zer gizatalde zeuden. Azal ezazu erlijio erromatarren gainean dakizun guztia.
3. Zeri deitzen zaio Antzinako Erregimena? Zer ezaugarri zituen politikaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik begiratuta?
4. Azal ezazu zer izan zen Espainiako Independentzia Gerra eta kronologikoki koka ezazu. Espainiako zein erregek bete zuen tronua gerra hori bukatzean?
5. Frantziako Iraultza gertatzeko zergatiak. Aipa itzazu faseak.
6. Bigarren Mundu Gerra: azal ezazu labur zein izan ziren bere zergatiak, adieraz itzazu aldiak eta bandoetako bakoitzean zein herrialdek hartu zuten parte.

7. Erregimen Frankista: azal itzazu ezaugarri nagusiak. Esan itzazu zein diren Erregimenaren etapa nagusiak.

GIZARTE ZIENTZIEN ESPARRUKO PUNTUAZIOA, OSOTARA: 10

PUNTU
